ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

BAZ | ARRASATEKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON | 2017 IRA. 13 | Zk. 10078 | Saila | Esp. | SARRERA

BAZ
Biztanleen Arreta Zerbitzua

# ESKABIDE ORRI OROKORRA
## INSTANCIA GENERAL

**ESKATZAILEA** / Solicitante

| IZEN-ABIZENAK edo SOZIETATEAREN IZENA<br>Nombre y apellidos o Razón Social | NAN edo IFZ<br>DNI o NIF |
|---|---|
| GURE ESKU DAGO - ARRASATE | G 75142042 |
| HELBIDEA<br>Domicilio: FERRERÍAS KALEA, 18 | E-MAIL<br>arrasate.gureeskudago@gmail.com |

| HERRIA<br>Población | PK<br>CP | PROBINTZIA | TELEFONOA |
|---|---|---|---|
| ARRASATE | 20500 | GIPUZKOA | |

**AGIRIA AURKEZTEN DUENA** / Presentador del documento

| IZEN-ABIZENAK edo SOZIETATEAREN IZENA<br>Nombre y apellidos o Razón Social | NAN<br>DNI | TELEFONOA |
|---|---|---|
| IGOR DORRONSORO PORTULARRUME | 44.130.681-Y | 667537000 |

| HELBIDEA<br>Domicilio | PK<br>CP | HERRIA<br>Población |
|---|---|---|
| ERGUIN, 34 - 1.B | 20500 | ARRASATE |

**JAKINARAZTEKO HELBIDEA** / Domicilio a efectos de notificaciones

| HELBIDEA<br>Domicilio | PK<br>CP | HERRIA<br>Población |
|---|---|---|
| UDALETXEA - HERRIKO PLAZA NAGUSIA | 20500 | ARRASATE |

**AZALTZEN DU** / Expone

**(Zehaztu hemen zure eskaera, ahal den modurik garbi eta laburrenean** /Concrete aquí su petición, del modo más claro y breve posible)

**Espediente zenbakia** / Nº de expediente relacionado ____________________

Arrasateko Gure Esku Dagok 'Kataluniako herriari eta urriaren 1eko erreferendumari babesa eta elkartasuna' adierazteko mozioa aurkezten du Arrasateko Udaleko Plenoak hurrengo bileran eztabaidatu dezan.
Erreferendumaren dataren aurretik ez bada Plenoaren bilerarik egin, Arrasateko udalak 'Kataluniako herriari eta urriaren 1eko erreferendumari babesa eta elkartasuna' jasotzen duen adierazpen instituzionala egiteko aukera aztertu dezala eskatzen dugu.

**(Toki gehiago behar baduzu, jarraitu atzeko aldean / Si precisa más espacio, continúe al dorso)**

**AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK** / Documentos que se adjuntan

'Kataluniako herriari eta urriaren 1eko erreferendumari babesa eta elkartasuna adierazteko' mozioa

**ESKATZAILEA edo AGIRIAREN AURKEZLEA (SINADURA)**
Solicitante o presentador del documento (Firma)

ARRASATE 2017/09/13

## ARRASATEKO UDALEKO ALKATEA

Orri honetako datu pertsonalak jasota datoz eskabidearen egileak hala onartuta. Datuok tratamendu automatizatua izango dute eta Arrasateko Udaleko informazio sisteman sartuko ditugu. Datu horiek udal kudeaketarako bakarrik erabiliko ditugu, eta beste administrazio publiko batzuei edo beste batzuei laga edo jakinarazi ahal izango dizkiegu, Norberaren Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan jasota datozen kasuetan. Datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango da Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan (BAZ).

Los datos personales contenidos en la presente instancia son recogidos bajo el consentimiento del afectado y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Mondragón. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o a terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través del Servicio de Atención Ciudadana (BAZ)

## KATALUNIAKO HERRIARI ETA URRIAREN 1eko ERREFERENDUMARI BABES ETA ELKARTASUN ADIERAZPENA

Ilusioz bizi dugu une historiko hau. Ilusioz, itxaropenez, arduraz eta, batez ere, arretaz. Kataluniak urriaren 1ean hitzordu bat du demokraziarekin, hitzordu bat du etorkizunarekin. Hilabete barru bide emango zaio katalanen hitzari eta borondateari. Gehiengo zabalez, etorkizuneko estatus politikoa erreferendum baten bidez erabakitzera doaz. Kataluniako herriaren ametsa betetzera doa eta haien ametsa gurea ere bada: herritar gisa erabakitzea. Horregatik, ondorengoa adierazi nahi da:

1.- Izan ere, urriaren 1ean, demokrazia dago jokoan, botoaren balioa dago jokoan, bozkatzeko askatasuna dago jokoan, eta herritar guztien duintasuna dago jokoan, edozein dela haien pentsaera eta edozein dela haien jatorria.

2.- Kezkatuta eta arduratuta gaude katalanen bozkatzeko nahiari eta erabakitzeko eskubidea erabiltzeari Espainiako Estatutik iragartzen ari diren erantzun demofobikoekin. Herritarron ardura de autoritarismoari aurre egitea. Eta, beraz, euskal herritarron babesak balio behar du zigor bidea, neurri errepresiboak eta mehatxuak alde batera geldi daitezen. Erabakitzeko bozkatzea demokrazia delako, ulertezina da erreferenduma auzitegien jomugan jartzea eta herritarren botoaren balioa ukatzea. Kataluniako herritarren gehiengoaren borondate demokratiko eta baketsuari erantzuten dio erreferendumak, eta horregatik, erreferenduma posible izan behar da.

3.- Denon artean babesa eta elkartasuna adierazi nahi diogu Kataluniako herriari eta urriaren 1eko erreferendumari; baita Kataluniako erakundeei ere, eztabaida politikoari bide emateko erakutsi duten borondate irmoagatik, herritarren hitza eta erabakia lehenesteagatik eta hautestontzietan jasotako agindua betetzeko hartutako konpromisoagatik. Begirunea eta errespetua adierazten diogu Kataluniako herritarren gehiengoaren borondateari; hau da, herritarrek etorkizuna erreferendum baten bidez erabakitzeari. Erabakitzeko bozkatzea demokrazia baita. Demokrazia besterik ez.